



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 13koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Oiongo Labraza Parke Eolikoaren Plan Bereziaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2021eko urriaren 28an, Oiongo Udalak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean, Oiongo Labraza Parke Eolikoaren Plan Bereziaren irismen-dokumentua egiteko eskaera osatu zuen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrari (3/1998, otsailaren 27koari) eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legeari (21/2013, abenduaren 9koari) jarraikiz.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientearen dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Oiongo Udalari.

Halaber, espedientearen jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki irizitako oharrak egiteko.

Indarreko legerian txostenak jasotzeko ezarritako epea igarota, eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak behar beste judizio-elementu bazituela ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (21/2013, abenduaren 9koaren) 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko efektuei buruzko analisia, hautabide egokienak hautatu ahal izateko; betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.





Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko eremua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzorua erabilerari.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta honako hauek guztiak ikusi: 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Oiongo Labraza Parke Eolikoaren Plan Bereziaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua garatzea ingurumen-ondorioetarako soilik, jarraian adierazten diren terminoetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Plan Berezia sustatzearen xedea da Labrazako kontzejuko (Oiongo udal-mugartea) lursail bateko lurzoru urbanizaezina antolatzea, Labrazako parke eolikoa deritzonaren energia eolikoa aprobetxatzeko instalazioak ezarri ahal izateko bertan.

Sustatzaileak landu duen dokumentazioaren arabera, Plan Berezia idaztearen helburua da erantzuna ematea ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak) 4. artikuluan xedatutakoari. Artikulu horrek ezartzen duenez, landa-lurzoruetan egin beharreko jarduketek zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzea xede badute –sektoreko legeriak (kasu honetan Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak) edo lurralde-plangintzak (kasu honetan maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duenak, zeinaren arabera instalazio horiek onura



publikokoak baitira, bere aplikazio-eremuan egon ala ez) interes publikokotzat jotzen dituenak, plan berezi bat izan beharko dute, baldin eta, gainera, ingurumen-inpaktuaren banakako adierazpena behar badute edo 5.000m²-tik gorako azalera hartzen badute.

Laburbilduz, Planak jarraian zehazten diren jarduerak proposatzen ditu Labraza kontzejuko lurretan (Oiongo udal-mugartea) 40 MW-eko potentzia maximoko eta 8 haize-sorgailuko parke eoliko bat instalatzeko.

Aipatutako parke eolikoaren osagai nagusiak honako hauek dira:

Haize-sorgailuak: 5 MW-eko potentziako, 127,5 metroko abatz-altuerako eta hiru besoko 145 metroko diametroko errotoea dituen haize-sorgailu eredu erabiliko da. Haize-sorgailuen zabaltasun-eremuak 131.923 m²-ko azalera du guztira. Haize-sorgailuak bi lerro paralelotan jartzen dira, bata bost haize-sorgailukoa eta bestea hirukoa, Marañon mendilerroko bi kordal aprobetxatuz, iparraldetik hegoalderako orientazioan. Lerro bereko haize-sorgailuen arteko distantziak 511 m eta 945 m artekoak dira, eta lerroen arteko distantziak 1.000 m eta 1.200 m artekoak.

Muntatzeko plataformak: dorre bakoitzaren ondoan 72 m x 42 m-ko plataforma horizontal bat gaituko da. Zimendu horiek guztira 37.825,41 m²-ko azalera hartuko dutela kalkulatu da.

Zimenduak: Zortzi zimendu proiektatu dira, oinarri zirkularreko eta ertz aldakorreko hormigoi armatuzko zapata batez osatuak. Zapatak gutxienez 22,9 metroko diametroa izango du behealdean, 6 metroko diametroa gainaldean eta 0,75 metroko idulki zentrokidea. Zimendua hondeaketa-lurrez estaliko da, haize-sorgailuen azpiko lurzoruaren aprobetxamendua maximizatzen. Guztira, zimenduek 3.757,44 m²-ko azalera hartuko dutela kalkulatu da.

Sarbidea eta barne-bideak: Parkearen eremurako sarbidea NA-7211 errepidearekiko loturaren bidez egingo da, 2,400 KP-an, eta, hortik parke eolikoraino, lehendik zegoen bide batetik; Planaren zirriborroaren arabera, ez da beharrezkoa lotura horretan esku-hartzerik egitea. Parkearen barruan, osagaiak eta ekipamenduak garraiatu ahal izateko eta instalazio-lanetarako garabiak haize-sorgailu bakoitzaren posizioetara lekualdatu ahal izateko, barruko bideak egingo dira. Bide horiek bi ardatzetan banatzen dira eta 5 metroko zabalera izango dute, muntatutako garabiaren zirkulazioa aurreikusten den zatietan izan ezik, horietan 6 metrokoa izango baita. Bideetako zoladura zabor-legarrezkoa izango da, salbu eta %10etik gorako malda zuzena duten zatietan, edo %7koa bihurgunean, non zoladura hormigoizkoa izango baita. Guztira, barruko bideen luzera 6.004 metrokoa izango da, eta horietatik 434 hormigoizko zatiak izango direla uste da; barruko bideek 31.461,80 m²-ko azalera hartuko dute guztira.

Kanalizazio elektrikorako eta haize-sorgailuen arteko komunikazioetarako zangak: Parkearen barruko bideekiko paraleloan joango dira, bideen alboetako lur-berdinketaren zabalera handituta. 22.899,26 m²-ko azalera hartzen dute.

Energia ebakutzeko linea elektrikoa. Haize-sorgailuek sortutako energia eroango du turbinen transformazio-zentroetatik parkeko 30/220 kV-ko azpiestazio kolektorera –Las Llanas TA handitzea izenekora–. Las Llanaseko azpiestazioa Las Llanas de Codés parke eolikoari lotutako azpiestazio bat da, lehendik zegoena, eta plan bereziaren eremutik kanpo dago, Nafarroako Foru Komunitate mugakidean.

Parke eolikoaren erdi-tentsioko linea hainbat sekzioetako aluminiozko eroaleen lurpeko linea baten bidez egingo da, hainbat motatako zangetan zuzenean jarriak egongo direnak; horrela konektatuko dira haize-sorgailu guztiak, elkarren artean eta transformazio-azpiestazioarekin.



Parke eolikoak, guztira, 50.837 m²-ko azalera hartzen duela kalkulatu da, aipatutako azpiegitura guztiak kontuan hartuta. Gainera, haize-sorgailuen zabaltasun-eremuak 131.923 m² hartzen ditu, kalkuluen arabera. Bi azaleren baturak parke eolikoaren 182.760 m²-ko azalera hartzen du guztira.

Alternatibak

0 alternatiba edo «Ez esku hartzekoa» aztertu ondoren ezetsi egin da, hainbat arrazoi direla-eta. Izan ere, Labrazako parke eolikoa alternatiba bideragarria da ingurumenaren ikuspegitik, eta EAEko 2030erako Energia Planaren helburuak lortzen lagunduko du, energia berriztagarriak sortzeari dagokionez; horrekin, garapen jasangarriari lagunduko dio, urtean 36.757 tona CO₂ garbi aireeratzea saihestuko baitu.

Horrez gain, bi aukera analizatu dira, instalatu beharreko haize-sorgailuen antolaketan eta kopuruan desberdinak direnak; halaber, mendilerro beraren barruan haize-sorgailuentzako hainbat kokapen aztertu dira. Azkenik, irizpide anitzeko analisia egin ondoren –ingurumen-aldagai ugari hartzen dituen kontuan, hala nola zarata, lurzorua, landaredia, fauna, naturagune babestuak, paisaia, kultura-ondarea eta lurzoruaren erabilerak–, 2. aukera aukeratu da, Labrazako herrigunetik eta Dueñasko pinuditik urrutien dauden haize-sorgailuak dituen, horrek paisaian edo naturaguneen gainean dituen ondorioekin. Gainera, alternatiba horrek lur-mugimendu txikiagoak eskatzen dituen, babestutako naturaguneen ikuspuntutik egokiena jo da. Alternatiben analisi hori ebakuzio elektrikoko linearen trazatura hedatu da; guztira, 3 trazatu analizatu dira, bi airekoak eta bat lurpekoa, eta lurpeko soluzioa aukeratu da.

2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak

Adierazi bezala, Plan Berezia formulatu da ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak) 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta helburutzat du Labrazako parke eolikoa kokatuko den lurzoruaren eremua mugatzea, hari atxikitako zerbitzu eta instalazio guztiak kontuan hartuta, Oion udalerriko lurzoru urbanizaezinaren hirigintza-antolamenduaren barruan. Planak onartzen du eremuan dauden ingurumen-balioak erabat errespetatuz egin behar dela integrazio hori.

Testuinguru horretan, Ingurumen Azterketa Estrategikoak justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jardueraildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute plana:

- a) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- b) Habitatak eta espezieak, natura-ingurunea eta lotura ekologikoa babestu eta hobetzea, eta arreta berezia jartzea Batasunaren intereseko habitatei (Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa).



- c) Mehatxatutako flora- eta fauna-espezieen lehentasunezko banaketa-eremuak, interes bereziko eremuak eta gune ahulak babestea (Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legearen 54. artikulua).
- d) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoraztea eta lurzorua erabiltzeko mugatzea.
- e) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- f) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- g) Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- h) Sustatzea energia aurrezteko, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenerazioa.
- i) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- j) Klima-aldaketarekiko urrakortasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- k) Arrisku naturalak minimizatzea.

Azaldukoari jarraituz, ingurumen-azterketa estrategikoak era espezifikoan justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen arestian azalduko ingurumen-helburuak eta nola laguntzen duen minimizatzen ingurumenaren gaineko ondorio negatiboak –proposatzen duen erabilera-erregimenetik erator daitezkeenak–; hori guztia Planaren moduko antolamendu-dokumentu bati dagokion xehetasun-mailarekin.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Parke eolikoa Oiongo udal-mugaratean dago, zehazki Marañon mendilerroaren bi kordal paralelotan eta haren hegoalderanzko mendi-inguruetan, Arabako lurralde historikoaren hego-ekialdeko muturrean, Nafarroako Foru Komunitatearen lursailekin mugakide.

Planaren lurralde-eremua osatzen dute Labrazako parke eolikoari dagozkion Oiongo udal-mugarateko lursail guztiek, hari lotutako zerbitzu eta instalazio guztiak kontuan hartuta, ebazpen honen 1. puntuan deskribatu den bezala. Aurkeztutako informazio grafikoaren arabera, Planaren eremuak 300 metro inguruko *buffer* bat du parkeari lotutako elementu guztien inguruan.

Definitutako eremuak bi zona mota biltzen ditu:

- Okupazio-eremua, parkeko elementu finko guztiak barne hartzen dituen: bideak, plataformak, zimenduak, zangak eta haize-sorgailuak, baita lur-zerrenda bat ere, palen luzeraren bikoitzaren zabalera duena; zerrenda horren ardatza palen lerrokatuta izango da. Plan berezian jasotako erabilera-erregimena aplikatuko da. Haize-sorgailuen zabaltasun-eremuari dagokion azalera barne hartuta, okupazio-eremua 182.760 m²-koa izango dela kalkulatu da.
- Afekzio-eremua: obrak gauzatzeko eragindako eremua eta/edo aldi baterako edo behin betiko erabilera mugatuta edo baldintzatuta izan dezakeena. Eremu horren barruan sartzen dira energia elektrikoa igarotzeko legezko zortasun-eremuak, Sektore Elektrokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak aipatzen dituenak.



Oion udalerrian indarrean dagoen plangintzaren arabera, Planaren eremua osatzen duten lurzorua lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen dira, kategoria hauetan: duen balio naturalaren ondoriozko babes bereziko eremua, baso-balioaren ondoriozko babes bereziko eremua eta lurrazaleko uren babes-eremua.

Planaren lurralde-eremuan bereziki garrantzitsuak diren esparruak daude, haien natura-balio bikainak, kultura-balioak, edo gaur egungo zein etorkizuneko gizakien osasunerako eta ingurumenerako dituzten arriskuak direla-eta.

Nahiz eta Labrazako kokalekua EAEko babestutako naturaguneen sarearen barnean egon ez, Natura 2000 Sareko zenbait lekutatik hurbil dago, baita babestutako beste naturagune batzuetatik ere:

- «Kodes mendilerroa» KBE (ES2200029), 1. haize-sorgailutik 1 km-ra.
- Arabako hegoaldeko mendilerroak KBE-HBBE (ES2110018), 1. haize-sorgailutik 5 km-ra.

Beste gune bat natura aldetik interesa duena, Planaren eremutik gertukoa, Dueñasko pinudia da; EAEko azpiegitura berdearen sareko biodibertsitate-erreserbatzat hartzen da. Kokalekutik hegoaldera dago, pinuditik gertuen dagoen haize-sorgailutik 1.200 m-ra baino apur bat gehiagora.

Horietaz gain, 1. haize-sorgailuaren iparraldera 7 bat kilometrora, Izkiko parke naturala dago, hori ere Euskadiko Natura 2000 Sarean dagoena (KBE-HBBE ES2110019). 12 bat kilometrora Laguardiako Aintziren biotopo babestua dago, aurrekoaren moduan Euskadiko Natura 2000 Sarean sartuta dagoena (ES2110021) eta hori ere nazioarteko garrantziko Ramsar hezegunetzat hartzen dena.

Arabako lurralde historikoko Lotura Ekologiko eta Paisajistikoaren Estrategiaren arabera, Planaren eremua igarobide ekologiko gisa proposatutako *lotura-interese*ko eremu batean dago; gainera, sakanen hondotik igarotzen diren errekek ere lotura-intereseko ibai-tarteak dira.

Parkea egingo den ingurunean, lurpeko ur-hornidurako bi puntu daude gutxienez –Ebroko Plan Hidrologikoan Eremu Babestuen Erregistroan sartutakoak–: Cabanillas eta Arroyo Valdevarón.

Planaren eremuan dauden komunitate batzuk Batasunaren lehentasunezko intereseko habitat naturalak dira, hala nola 6220* habitata: «Gramineodun eta urteroko *Thero-Brachypodietea* espezedun eremu substepikoak». Era berean, habitat hauek ere horren eraginpean gera litezke: 4090, «Txilardi oromediterraneo endemiko elorri-triskadunak» eta 9340, *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* basoak, besteak beste.

Faunari dagokionez, kokaleku hau nabarmentzen da gertu dauden malkarretan (Kodes mendilerroan, Arabako hegoaldeko mendilerroetan) habiak egiten dituzten hegazti harrapariak elikatzea joaten diren eremua delako. Abifaunarentzat duen interesa kontuan hartuta, Planaren eremua abifauna babesteko eremutzat hartzen da, 1432/2008 Errege Dekretuan (abifauna linea elektrikoetan talka egitearen eta elektrokutatzearen aurka babesteko neurriak ezartzen dituen) xedatutakoaren ondorioetarako.

Arabako lurralde historikoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren arabera, Planaren eremuaren hegoaldeko herenaren zati bat 29. zenbakiko Aparteko Paisaian sartuta dago («Labraza eta Dueñasko Pinudia»).

Kultura-ondareari dagokionez, planaren eremuko bi elementu interes arkeologikoa dute, HD Eren arabera: Nuestra Señora de Cerrango herrixka eta tenplua eta San Juango herrixka eta tenplua. Gainera, eremu horretan interes etnografikoko hainbat elementu identifikatu dira, antzinatik bertan egindako erabileren eta jardueren erakusle: terraza-sistemak, etxolatxoak, elur-zuloak, eskortak. Halaber, ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuak eragiten dio Planaren eremuari; horren bidez,



Kultur Ondasuntzat jotzen da, Monumentu Multzoaren kategoriarekin, Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaia Kulturala.

Azkenik, aipatu behar da kokalekutik gertuen dauden hiriguneak hauek direla: Labraza (ekialdeko lerroko 5. haize-sorgailutik 1.500 metro ingurura) eta, hurbilena, Barriobusto (haize-sorgailu beretik 1.600 metrora).

Plana egiteko, kontuan izan beharko dira aipatutako garrantzi desberdineko eremuak, bai eta ingurune fisikoa zuzenean eraldatzen duten jarduketak garatzeko horietatik erartortzen diren baldintzatzaileak ere.

4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak

Ingurumen-azterketa estrategikoak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak detektatu beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Ingurumen-ondorioetarako, aurreko paragrafoan jasotako eremu garrantzitsuak, hasiera batean, desegokitzen dira Planeko jarduketak kokatzeko, batez ere, Batasunaren intereseko habitatak –zehazki, lehentasunezkoak–, Ebroko Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroko elementuak eta Planaren eremuan dauden Kultura Ondareko elementuak –zehazki, inbentariatutakoak edo katalogatutakoak–.

5. Egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-analisi laburra

Jarraian laburbiltzen da zein diren ingurumen-alderdi garrantzitsuenak izapide honetan jasotako txostenetan: ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta.

Lehenik eta behin, adierazi behar da Labrazako Administrazio Batzarrak idazki bat erantsi duela adierazteko *ez dagoela ados Aixendar SAk sustatutako proiektu honekin: Oionen (Araba) eta Aguilar de Codesen (Nafarroa) 40 MW-eko Labraza Parke Eolikoa eta haren ebakuazio-azpiegitura egitea eta Las Llanas de Codés 30/220 kV-ko transformazio-azpiestazioa handitzea; eta horren aurka dagoela*. Halaber, adierazpen horretan dio Labrazako Administrazio Batzarrari ahalmena ematen zaiola *auzo-batzarraren agindua betetze aldera egoki iritzitako alegazio guztiak aurkezteko*.

Bigarren txosten batean, aipatutako Administrazio Batzarrak parke eolikoaren aurka dagoela berretsi du, hau argudiatuz: *proiektuaren eraginpeko eremuan gaur egun horrelako azpiegitaririk ez dagoela, naturaltasun handia duten inguruak direlako, eta, proiektu hori onartzuz eta gauzatzuz gero, horrek gizartean, ekonomian eta ingurumenean inpaktu larria izango lukeela ukitutako udal-mugarteetan, bai eta egungo ekonomia-, paisaia- eta ingurumen-aberastasunaz gozaten duten herritar guztietan ere*.

Labur-labur azalduko ditugu Labrazako Administrazio Batzarraren txosten luze eta xehatua jasotako oharra:

- Kontsulta-fasean egindako parte-hartze publikoko eta administrazioei entzunaldia emateko prozesua, Labrazako kontzejuari kontsultarik egin gabekoa, zuzenbidearen aurkakoa izan liteke, tokiko erakunde den kontzejuari kontsulta egin ez zaiolako, eta aurkeztutako dokumentazio guztia aztertze eta ebaluatzeko baimendutako denbora-tartea laburra izan delako.
- Batzarrak bere egiten ditu udal-arkitektoak jakinarazi eta ohartarazi dituen lege-baldintzak, *lege-betekizunak direlako eta horiek ez betetzeak erabateko baliogabetzea ekarriko lukeelako, eta, izapidetuko balira, ordenamendu juridikoaren aurkakoak izango liratekeelako (39/2015 Legearen 47.1.e eta .f art.)*.

Hasierako dokumentu estrategikoari dagokionez, hainbat ohar egin dira honako gai hauei buruz:



- Plana ez dago araudian ez jasota ez aipatuta, eta hura modu orokorrean aipatzeak ez du inolako arau-estaldurarik aldarrikatzen; ez dagoenez inongo arauen babesean, ziurgabetasun juridikoa sortzen da, edo, are okerrago, lurralde-antolamenduaren araudian arautu eta baimendu ez dena ad hoc legeztatze ahalegina da.
- Hasierako dokumentu estrategikoaren hainbat baieztapen eta eduki zalantzan jartzen dira eta modu negatiboan baloratzen, honako atal hauei dagokienez: plangintzaren helburuak, Planaren irismena eta edukia, teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren alternatiben analisia, Planaren koherentzia LAGekin eta indarrean diren Lurralde Plan Sektorialekin –barne hartuta energia eolikoaren LPSa eta Guardiako (Arabako Errioxa) Lurralde Plan Partziala–, bai eta inpaktu-aula ere (ez dakar ez baloraziorik ez puntuaziorik, eta ez du balio teknikorik ez mailarik zuzentasunari buruzko irizpide eta balorazio-neurriak ezartzeko, ezta plana baliogabetzeko ere).
- Era berean, zalantzan jartzen dira Planaren zirriborroaren eduki asko, zenbait atali dagokienez, hala nola «Aurkibidea. Informazio- eta justifikazio-memoria» (Plana ez dator berori jasotzen duen arau batetik, eta, beraz, ez da garapen bereziko plan berezi bat, baizik eta lurralde baten nobazio eta erregulazio globalekoa, eta Araba osoari eragiten diona); LAGei, LPSari eta LPPari eta Oiongo HAPOari egindako aipamenak, haien iritziz, erreferentzia orokorrak dira, eta ez dira arau-esparru bat plan honetarako.
- Plangintzarik eza: energia eolikoa modu ordenatuan eta arduratsuan garatzeko plangintza eskatzen da. Plan honen izapidetzea bertan behera utzi beharko litzateke energia berriztagarrien LPSa onartu arte; izan ere, gerta liteke plangintza horrek ez jasotzea kontsultatzen ari garen Azterketa eta Plan Berezia, edo horren aurka joatea. Kontuan hartuta, gainera, gaur egun Elgea-Urkilla eta Badaia mendilerroko zentral eolikoak funtzionatzen ari direla Araban, ohar gisa azaltzen da ez direla aztertzen eta ebaluatzen proiektu eolikoek hedapen masibo horrek sortuko dituen inpaktu metatzaile eta sinergikoak. Kontsultatzen ari garen Plan Berezian jasotako instalazioak ez daude jasota azaroaren 8ko ITC/2906/2010 Aginduan (2010eko azaroaren 12ko BOE, 274. zk.). Agindu horren bidez, energia elektrikoa eta gas naturala garraiatzeko sareen salbuespenezko instalazioen eta jarduketan urteko programa onartzen da.
- Proiekturik eza. Ingurumen-inpaktuaren azterketa eta aurreproiektua badaude, baina eskuragai dagoen argitaratutako dokumentazioan ez dago jasota proiektu bat, aurreproiektu bat baizik. Gainera, ministerioan izapidetu behar den instalazio bat da (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioan).
- Prozedura eta araudia baliogabeak edo bateraezinak izatea arauzko honako tresna hauei dagokienez, eta natura-, paisaia- eta kultura-baliabideak zaintzearekin bateraezina izatea:
 - LAG.
 - Ez betetzea Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien 2008ko urriaren 15eko Erabakia, energia berriztagarrien arloan eragin handiena duten jarduerak antolatzeke irizpideak zehazten dituena.
 - Eusko Legebiltzarraren 2009ko ekainaren 16ko agindua ez betetzea. Agindu horren bidez, Energia Eolikoaren LPSa kentzera eta ingurumen-araudi berriarekin bat datorren beste batekin ordeztara behartu zen; berriak, besteak beste, gizarte-adostasunaren emaitza izan beharko zuen, eta zegokion baterako ebaluazioa egin beharko zitzaion.
 - Egungo LAGetatik eratorritako energia eolikoaren lurralde plan sektorialik ez egotea (nahitaezkoa da) eta alde aurretik osorik izapidetuta ez izatea.
 - Bateraezintasuna, mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Arabako Foru Arauarekiko.
 - Batasunaren intereseko habitata, paisaia berezia eta KBE: Planaren eragin-eremuan natura- eta paisaia-baliabide baliotsuak daudela nabarmentzen da: habitatak, natura-intereseko guneak (KBE eta HBBE), Arabako paisaia berezi eta aparten katalogoko guneak, ondare historiko-kulturala. Balio horien gaineko afekzioari dagokionez,



txostenak adierazten du *plan bereziak eta azterketak afekzio handia dutela balio horien gainean, baina ez duela aztertzen gune babestu eta balioetsi horien gaineko inpaktuak eta galtzen den balioa; nolana ere, afekzio horri kontuan hartuta, ezin onartu daiteke parke eolikoaren proiektu hori baimenduko, arautuko eta babestuko duen plan berezirik bat ere.*

- Araban Energia Berriztagarriak Sustatzeko eta Garatzeko 2010-2020 Mugarri Planari dagokionez (282/2009 Foru Agindua, abenduaren 23koa, Araban Energia Berriztagarriak Sustatu eta Garatzeko Estrategiaren eta Ekintza Planaren testu bategina ALHAOn argitaratzeko agintzen duena), Labrazako Batzarraren txostenak adierazten du, aipatutako Mugarri Planarekin bat etorritik, eraiki asmo dagoen zentralaren modukoak eraikitzea debekatuta dagoen eremu batean kokatu nahi da instalazioa. Ondorio hori justifikatzeko, aipagai den dokumentuaren azterketan oinarritutako argudio zehatz bat egiten du. Azaldutakoaren arabera, ebaluazio-erakundeei eskatzen zaie Mugarri Plana har dadila Plan Bereziari eta planteatutako zentral eolikoaren proiektuei egindako ohar edo alegazio global moduan.
- Labrazaren berezitasunak: habitata hondatzeko eta desagertzeko arrisku handia. Labrazako Batzarraren txostenaren arabera, Labrazako kokalekua «*dekretu-proiektu bati lotuta dago, hain zuzen, Toloño-Kantabria mendilerroa (ES2110018) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen eta horren kontserbazio-neurriak, bai eta Araba hegoaldeko mendilerroetako (ES0000246) Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuarenak (HBBE) ere, onartzen dituenari. Beraz, Plan Berezia eta eremu horretako zentral eolikoaren proiektua deuseztatu egin behar dira*».
- Aztarnategi arkeologikoetan izan ditzakeen inpaktuak: Alegaziogileak egindako analisian oinarrituta, ez dirudi tokian bertan aztarnategiak detektatzeko egindako prospekzioa nahikoa denik; *izan ere, horri buruzko azterketaz arduratzen den aholkularitza-enpresak deskribatu eta zerrendatutako aztarnak gain beste batzuk ere badaude*. Honako hau ondorioztatu du: *Zuhurtzia-printzipioaren arabera, aurkitutako aztarnen ebidentziak eta aztarnategi gehiago egotea oso litekeena izatea gehi lurra mugituz gero horiek berreskuratzeko ezintasuna direla eta, planteatutako eremuan haize-sorgailurik ez kokatzea komeni da*.
- Alternatiba bideragarriak ez aurkeztea eta aztertzea: Energia berriztagarriak garatzeko beste aukera batzuk ere badaudela adierazten da, hala nola *ureztapen-putzuen gainean eguzki-plakak jartzeko proposamena, eskualdeko hornidurarekin; horrek, gainera, haiek estalita, onurak ekarriko lituzke, lurrunketa saihestuko bailuke*.
- Txostenak ondorioztatzen du Planaren eremua zentral eolikoentzako eskusio-eremu batean dagoela Mugarri Planaren arabera; gainera, LAGetan debekatuta dagoen instalazioa da, ez baitago onartuta energia eolikoaren LAPa; paisaia-inpaktua oso larria izango litzateke, oso ondo kontserbatutako herriak eta eremuak larriki degradatuz, eta eragin larria izango luke paisaian, ondare historikoan eta inguru horretako aisialdiko jardueretan, mendi-ibilaldietan edo landaturismoan.

Horregatik guztiagatik, eskatzen dugu onar dadila Administrazio Batzarrak aurkeztutako txostena, proiektua baliogabetzea erabaki dadila *eta eten dadila Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenaren eskaeraren izapidetzea, jendaurrean jarritako Ingurumen Inpaktuaren Azterketan funtsezko akatsak daudelako, eta Plan Berezia ez dadila bideratu, azaldutako oharrengatik*.

Eguzkizaleak elkarrekin idazki bat aurkeztu du, funtsean Labrazako Administrazio Batzarrak egindako ohar berberak jasotzen dituena, zeinak aurreko paragrafoetan laburbildu baitira.



Era berean, aipatzen ditu aurkezten dituen alegazioei dagozkien zuzenbideko oinarriak, eta arau ugari aipatzen ditu, bai estatu-mailakoak, bai autonomia-erkidegokoak, foru-mailakoak eta toki-mailakoak, bere iritziz Planak urratuko litzuzkeenak.

Azken gogoeta gisa, honako hau eskatzen du:

- *«Dagozkion izapideak egin ondoren, aipatutako proiektua baliogabetzea erabaki dadila, eta, ondorioz, eten dadila Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenaren eskaeraren izapidetzea, jendaurrean jarritako Ingurumen Inpaktuaren Azterketan funtsezko akatsak daudelako, eta Plan Berezia ez dadila bideratu, azaldutako oharrengatik».*
- *«Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 4. artikulua araberara, proiektu honekin zerikusia duten espediente eta izapide guztietan interesduntzat har nazatela, eta, lege horren 40. artikulua eta hurrengo araberara, pertsonalki jakinaraz diezadatela horiei ematen zaien ebazpena».*

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak uste du Planak erabilera nagusitzat definitzen duela, xede duen eremurako, «energia eolikoa jasotzea eta eraldatzea», eta, halaber, definitzen du erabilera-erregimen bat aipatzen dituen, era generikoan, parke eoliko baten funtzionamenduari bateragarritzat edo bateraezintzat jo daitezkeen erabilerak eta jarduerak. Horri dagokionez, uste du, ukitutako eremuen tipologia duen ingurumen-balioa kontuan hartuta, proposatutako Plan Bereziaren xede den lurralde horren ingurumen-integrazioa hobetzeko, eta Arabako Errioxako Lurralde Plan Partzialaren xedapenekin koherentzia hobea mantentzeko, beharrezkotzat jotzen dela Oiongo HAPOn indarrean den erabilera-erregimenari eustea, erabilera onargarritzat hartuz «energia eolikoa jasotzeko eta eraldatzeko» proposatutako erabilera.

Plan Berezia ildo horren araberara berrikusteko eskatzen da.

Gainera, aipatutako zuzendaritzak idazkiari erantsi dio, Plan Bereziaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa izapidetzeko interesgarria izan daitekeelakoan, 2021eko urrian Labrazako parke eolikoaren aurreproiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketari buruz egin zuen txostena – haren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta izapidetzearen esparruan–; Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa da Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena egiteko ingurumen-organo arduraduna. Txosten honek aurreproiektu horren analisia eta balorazioa jasotzen ditu, baita aipatutako zuzendaritzaren iritziz parke eolikoaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren espedientean sartu beharreko proposamenak ere, ingurumen-alderdiei buruzkoak, hala nola paisaiari, landarediari, habitatei eta faunari (abifauna eta kiropteroak) buruzkoak.

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak uste du parke eolikoaren proiektua eta Plan Berezia zuzenean lotuta daudela, eta, beraz, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko kontsiderazioak eta zehaztapenak zuzenean eraman behar direla Planaren ingurumen-ebaluazioaren emaitzetara eta ondoretara. Ildo horretan, zuzendaritza horren idazkiak txosten hauek atxikitzen ditu, Labrazako parke eolikoaren proiektuaren ingurumen-ebaluazio arruntaren esparruan egindakoak: 2021eko maiatzaren 10ekoa, irailaren 14koa eta urriaren 22koa.

Bestalde, zuzendaritza horren txostenak ontzat ematen du lurzoru urbanizaezineko kategoriak mantentzea, parke eolika osatzen duten jarduketak eta azpiegiturak egiteko esku-hartzerik behar ez duten eremuetan indarrean direnak. Era berean, hautatutako alternatibaren aldeko balorazioa egin du, bai haize-sorgailuen kokapenari dagokionez, bai Parkea osatzen duten azpiegitura nagusiei dagokienez, ebakuazio elektrikoko linea barne. Lehenengo kasuan, Dueñasko pinuditik urruntzen delako, eta, bigarrenean, lurpeko linea bat delako; horrek nabarmen gutxitzen ditu paisaiaren eta abifaunaren gaineko afekzioak, eta, gainera, aprobetxatzen ditu lehendik dauden instalazioak eta parke eoliko mugakideak dagoeneko aldatu dituen eremuak.



Txostenak Planaren eremuaren garrantzia nabarmentzen du, natura-balio garrantzitsuak baititu, hala nola Batasunaren intereseko habitatak, baita lehentasunezkoak ere; aparteko paisaiak (29. zenbakiko Aparteko Paisaia: «Labraza eta Dueñasko Pinudia», Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaia Kulturala) eta lotura-intereseko eremuak.

Azkenik, txostenak eskatzen du errespetatzeko Oiongo HAPOk plan bereziarekin bat datozen lurzoru urbanizaezineko eremuetan ezartzen dituen zehaztapenak; izan ere, Planak ez du aldatzea eskatzen gainjarrita dauden udal-hirigintzako plangintzaren kategoriak eta alderdi baldintzatzaileak.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordeztaren ustez, azterketak jaso behar ditu giza habitataren kalitateari buruzko alderdiak, hauei buruzko datuak emanez: parke eolikitik gertu dagoen biztanleria, baliabide hidrikoak eta ur-harguneak, airearen kalitatea, argi-kutsadura eta lurzoruaren erabilerak. Gainera, hauek ere jaso behar ditu: alderdi horiekin lotutako inpaktuen azterketa bat, ukitutako biztanleriaren osasunean duen eraginaren balorazioa, arintze-neurriak eta aldagai horiei dagokienez ingurumena zaintzeko programa.

Kultura-ondareari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak uste du hasierako dokumentu estrategikoak behar bezala jasotzen dituela proiektuaren ingurunean dauden kultura-ondareko elementuak. Elementu batean, afekzio zuzena eragin dezake haize-sorgailuen lerroa ezartzeko lanak egingo diren zonarekiko hurbiltasunak edo bat-etortzeak. Hain zuzen, Oiongo 14. ustezko arkeologia-gunean: Nuestra Señora de Cerrango herrixka. Hasierako dokumentu estrategikoan proposatutako babes-neurriak nahikotzat jotzen dira, baina Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren txostenaren arabera, neurri horiek dagozkien proiektu arkeologikoetan zehaztu behar dira, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak alde aurretik onar ditzan.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzaren Ondare Historiko-Arkitetkonoaren Zerbitzuaren txostenaren arabera, haize-sorgailuen garaiera kontuan hartuta, Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaia Kulturalaren (89/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Arabako Errioxako (Araba) ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko denaren) gaineko pertzepzio inbaditzailea sortuko dutela aurreikusten da, eta paisaia distorsionatuko dutela, eta bertako balioak degradatu. Kutsadura bisuala sortzen duela irizten zaio, eta, beraz, badu babestutako kultura-ondasunean eragin negatiboa, ondare historiko-arkitektonikoaren ikuspegitik.

Azkenik, Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak adierazi du Planaren ondorioz ingurumenean ondorio esanguratsuak eragin ditzaketan ekintzak administrazio horrek jakinarazitako proiektua gauzatzean daudenen berberak direla, eta proiektu hori baloratzeko egin den txostena erantsi du.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. Eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologikoari erantzun behar diote:

1. Proposatutako planaren deskribapena

1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak



- 1.2. *Planaren irismena, edukia eta garapena*
- 1.3. *Plangintza-alternatibak*
2. *Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea*
 - 2.1. *Ingurumen-egoeraren deskribapena*
 - 2.2. *Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak*
3. *Ingurumen-ondorioak.*
4. *Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.*
5. *Ingurumena zaintzeko programa*
6. *Ingurumen-laburpena*
7. *Laburpen ez-teknikoa.*

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

- a. Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen Plana onartzeko prozedura, eta identifikatuko da nor den behin betiko onespeneren organo sustatzailea eta organo substantiboa.
- b. Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, labur-labur jasoko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatzean, ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.
- c. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian planaren gaineratik dauden plan edo programen onespenera egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren.
- d. Hala badagokio, hierarkian planaren gaineratik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoetan finkatutako irizpideak eta zehaztapenak jasoko dira, baita horiek garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluazioaren xede den planaren eremuan edo xedean aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.
- e. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Gutxienez, honako plan, arau edo estrategia hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduen Gidalerroak (LAG).

- Guardiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala, LPP honen 2. aldaketan agertzen diren paisaiaren zehaztapenak barne.
- Energia Eolikoaren Lurralde Plana Sektoriala
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- Ebroko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoa.
- Euskadiko Energia Estrategia 2030. Hau justifikatu beharko da: Planak nola erantzuten dien Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak sustatutako 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duen Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2016ko uztailaren 4ko Ebazpenaren D) atalean jasotzen diren Energia Estrategiaren ondoriozko planen eta proiektuen ingurumen-ebaluaziorako jarraibide orokorrei.

Era berean, kontuan hartu beharko dira aipatutako estrategiaren I. eranskinean jasotako ingurumen-neurri eta -gomendioak.

- Araban Energia Berriztagarriak Sustatzeko eta Garatzeko 2010-2020 Mugarri Plana (282/2009 Foru Agindua, abenduaren 23koa, Araban Energia Berriztagarriak Sustatu eta Garatzeko Estrategiaren eta Ekintza Planaren testu bategina ALHAOn argitaratzeko agintzen duena).
- Arabako lurralde historikoko Lotura Ekologiko eta Paisajistikoaren Estrategia.
- Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoa.
- 89/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaia Kulturala Kultur Ondasun kalifikatzen duena, Monumentu Maltzoaren kategoriarekin.
- 11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa, mendiei buruzkoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismena eta eremua behar bezala zehaztu behar dira, eta zehaztasunez eta eskala egokian jaso behar da Planean proposatzen den erabilera-araubidea aplikatuko den lurralde-eremua.

Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du Azterketak, eta haiek lotura izan beharko dute planak eragindako eremuan indarrean den antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere Plana garatzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

Planean proposatutako plangintza xehatuari eta Planaren eremuan ezarri nahi dituen erabileren erregulazioari dagokienez, kontuan hartu beharko da Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak Oiongo HAPOn indarrean diren erabilerei eusteari buruz egindako proposamena, barne hartuta *energia eolikia jasotzeko eta eraldatzeko proposatutako erabilera ere*, erabilera onargarri gisa.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektuen ezaugarriei buruzko aurreikuspen bat egingo da.



Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko ditu Azterketak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean ahalik eta kalte gutxien sortzeko gidalerroak ezartzeko.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Horri dagokionez, kontuan hartu beharko dira Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak emandako txostenean jasotako zehaztapenak, Labrazako parke eolikoaren proiektuari buruz gaur egun dagoen informaziorik zehatzena emanez, Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko garrantzitsua izan daitekeena.

d. Plana behin betiko onartu ondoren, haren garapena zehaztuko da eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, bai eta Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta / edo -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituenak: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, *pdf* eta *shape* formatuetan.

1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauek buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba edo esku ez hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

Atal hau idazteko, kontuan hartuko dira 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren I. eranskinean alternatiben analisiari buruz jasotako xedapenak, eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak sustatutako 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duen Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2016ko uztailaren 4ko Ebazpenaren C1.c3 apartatuan jasotzen direnak.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Behar denean, modu kartografikoan jasoko dira aztertu diren aukerak.



2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak zehaztea

Azterketak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren afekzio-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena –Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak izan ditzaketen guneak bakarrik hartuta–. Planaren antolamendu-eremua nabarmen gainditzen duten zonak soilik deskribatuko dira zona horietan ingurumen-afekzio nabarmena aurreikusten denean; adibidez, paisaia-afekzioei buruzko alderdiak edo giza habitataren kalitateari buruzkoak.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurumenaren aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko lekuak, igarobide ekologikoak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta egungo presioei eta mehatxuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotu egin daitezkeen adieraziko da.

Ildo horretan, azterketari erantsi beharko zaio planaren garapenak ukituko duen landarediari eta florari buruz dagoen informaziorik zehatzena eta eguneratuena, batez ere Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitatei dagokiena, lehentasunezkoen arreta berezia eskainiz. Azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionalitate ekologikoa zehaztuko dira. Proiektuaren eremuan egun dauden landaredi moten banaketa-mapa zehatzak jasoko dira, bai eta bertan dauden Batasunaren intereseko habitatenak ere. Halaber, proiektuaren afekzio-eremuan egon litezkeen flora mehatxatuko espezieak zehaztuko dira, mehatxu-estatusa eta jarduketekiko hurbiltasuna adieraziz. Halaber, hala badagokio, eremuan dauden landaretza aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

Planaren eremuko faunaren karakterizazioari dagokionez, eta aurreko kasuan bezala, azterketari erantsi beharko zaio planaren garapenak uki ditzakeen animalia-espezieei buruz dagoen informaziorik zehatzena eta eguneratuena, bereziki abifaunari eta kiropteroei buruzkoa, arreta berezia eskainiz Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezieei eta mehatxatuei.

c. Paisaia. Arabako lurralde historikoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren arabera, Planaren eremuaren hegoaldeko herenaren zati bat 29. zenbakiko Aparteko Paisaian sartuta dago («Labraza eta Dueñasko Pinudia»). Halaber, ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuak eragiten dio Planaren



eremuari; horren bidez, Kultur Ondasuntzat jotzen da, Monumentu Multzoaren kategoriarekin, Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaia Kulturala.

Ondorioz, eta eremuko paisaia-baliabideen aldaketei dagokienez, jarraian adierazten diren alderdien analisi zorrotz eta zehatza egingo da:

- Jarduketaren ikusgarritasuna ikus-eremuaren hainbat gunetatik, ibilienak lehenetsita, eta gaur egungo egoera eta etorkizuneko konparatuz.
- Kalitatea.
- Hauskortasuna.

Paisaiaren kalitatearen berezko paisaiaren osagai bereizgarriari arreta berezia jarriko zaie, alderdi estetiko eta kulturalak kontuan hartuta. Horri dagokionez, kontuan hartuko dira osagai naturalen eta erabileren integrazioa, konposizio estetikoa eta sortzen den giro emozionala. Paisaiaren kalitatearen analisiak baloratu beharko du parke eolikoaren instalazioek eragindako balio estetiko-kulturalen galera, kontuan hartuta Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaia Kulturalaren Monumentu Multzoan izan dezakeen afekzioa.

Gomendatzen da egindako analisiaren emaitzak baloratzeko erraz interpreta daitezkeen datuak aurkeztea; adibidez, simulazio-irudiak sartuta.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren urrakortasuna, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Era berean, ingurumen-arazoak deskribatuko dira, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordeak espediente honi buruz emandako txostenean zehaztutako alderdiekin lotuta detektatu direnak, eta hauei buruzko informazioa emango da: parke eolikitik hurbil dauden edo horren eraginpean dauden herriak, baliabide hidrikoak eta ur-harguneak, airearen kalitatea, kutsadura akustikoa eta argi-kutsadura eta lurzorua erabilera.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuko gunek identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Adieraziko da zein den hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, urrakortasuna, tresna eta babes maila. Era berean, aipatuko da zein arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babesa kultura-ondasunari.

Nolanahi ere, eta alderdi horiei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidean jaso dituzten txostenetan agertzen diren kontsiderazioei erantzuna eman beharko die Azterketak; horri dagokionez, kontuan hartu beharko da Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaia Kulturalaren Monumentu Multzoan (ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuaren bidez kalifikatua) eragindako afekzioa.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria, inguru horretako aisialdiko, mendi-ibilaldietako edo landa-turismoko jarduerak eta abar.



Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, ebaluatzen den agiriarekiko proportzioa duen eskalan.

2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko eremuan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak detektatu beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintza dezaketen alderdiak honako hauek dira: baliabide naturalen kontserbazioari lotutakoak (Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko florako eta faunako habitatak eta espezieak), paisaiari lotutakoak (katalogatutako paisaien presentzia), kultura-ondareari lotutakoak (interes arkeologikoa eta etnografikoa duten elementuak) eta giza habitataren kalitateari lotutakoak, baita Azterketan aztertuko diren beste zenbait ere.

3. Proposatutako planaren ingurumen-eraginak

a. Apartatu honetan, ingurumenean eragin ditzakeen ondoren adierazgarriak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea, ondare historikoa barne, klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezakeen eragina –planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia barne–, ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia; faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, ukitutako ekosistemek eskaintutako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuz. Ondorio horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako ondorioak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrek eta iragankorrek, positiboak eta negatiboak.

Azterketak bereziki aztertu beharko ditu Planaren jarduketa-proposamenei lotutako ekintzen ingurumen-eraginak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan (planaren eremutik gertu dauden parke eolikoak) eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren efektu metatzaile eta sinergikoak.

Hala dagokionean, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia jorratuko da:

- Planetik eratorritako jarduketek natura-ondarean dituzten eraginak zehaztu eta baloratuko dira, Planaren afekzio-eremuan identifikatutako ingurumen-aldagai guztiei eragin ote diezaieketen kontuan hartuta, arreta berezia eskainiz Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko

landaretzari eta habitatei –bereziki lehentasunezkoen–, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuei –bereziki, abifaunari eta kiropteroen–, interes geologikoko lekuei, igarobide ekologikoei, etab.

Batasunaren intereseko landarediaren eta habitaten gaineko inpaktua baloratzeko, eraginpeko azalera ez ezik, kontserbazio-egoera, adierazgarritasun-maila eta konektagarritasuna ere kontuan hartuko dira.

Arriskuan dagoen edo EAEn oso kopuru mugatua dagoen flora-espezie bakoitzaren kasuan, Plana garatzeko jarduketek okupatuko duten populazioen azalera kuantifikatuko da, populazio horien kokapenaren xehetasun-kartografia Planaren okupazio guztien kartografiarekin kontrastatuz. Hala badagokio, azalera horietan suntsituko/kaltetuko den espezie bakoitzaren ale kopurua zehaztuko da.

Azterketak baloratuko du Planaren jarduketek parke eolikoaren afekzio-eremuan identifikatutako fauna-talde guztiei eragiten dieten, bai zuzenean, bai zeharka, habitatak aldatzeagatik, eta bereziki azpimarratuko du abifaunaren eta kiropteroen gaineko inpaktuen balorazioa. Ildo horretan, kontuan izan beharko dira Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak espediente honi buruz egindako txostenaren kontsiderazioak.

- Parke eolikoak paisaian duen eragina analizatuko du Azterketak, barne hartuta Planaren eremuko paisaiaren ikuspegi-eremuarekin, kalitatearekin eta urrakortasunarekin zerikusia duten alderdiak.

Paisaiaren gaineko afekzioari dagokionez, kontuan izan beharko dira Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak espediente honi buruz egindako txostenaren kontsiderazioak.

- Kultura-ondareko elementuen gaineko afekzioak baloratzeari dagokionez, Azterketak kontuan hartu behar du Planaren eremuan dauden ondasunetan gerta daitekeen afekzioa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidean jaso dituzten txostenetan agertzen diren kontsiderazioei jarraituz.
- Giza habitataren kalitateari dagokionez, afekzioen analisisan kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzak espediente honi buruz emandako txostenean zehaztutako alderdi guztiak: soinuaren, airearen, kontsumorako uren eta lurzoruen kalitatea, eremu elektromagnetikoak eta ukitutako herritarren osasunean eragindako inpaktuak.

Era berean, kontuan hartuko dira espediente honi buruz Labrazako Batzarrak egindako txostenaren kontsiderazioak, inguruko aisialdi-baliabide eta -jarduerei, mendi-ibilaldiei edo landa-turismoari eta abarri buruz.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efektuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta urrakortasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.



Ahal den guztietan, efektuak edo ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilia, planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen eragin horien iragarpenean.

c. Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.

d. Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

3.1 Natura 2000 Sareko guneetan gerta daitekeen afekzioari buruzko balorazioa

Ebazpen honen 3. puntuan adierazi den bezala, Plana garatzeko jarduketak Natura 2000 Sareko zenbait guneren inguruan egingo dira, bai EAEkoak bai Nafarroako Foru Komunitatekoak.

A priori, Planaren zein proposatzen dituen garapen-jarduketek ezaugarriak direla eta, nabarmenak izan daitezke espezie enblematikoei eta Batasunaren intereseko espezieei eragindako afekzioak, batez ere abifaunari eta kiropteroei, funtsezko elementuak baitira aipatutako Natura 2000 Sareko guneen kudeaketan, kontuan hartuz, gainera, inguruan beste parke eoliko batzuk egotearen efektu sinergikoak.

Ondorioz, eta Planak Natura 2000 Sareko guneetan eragin nabarmena –zuzenean edo zeharka– izan dezakeela aurreikusten denez, apartatu espezifiko bat sartuko da bertan izango dituen ondorioak ebaluatzeko, gunearen kontserbazio-helburuak aintzat hartuta. Apartatu horretan, kontuan hartuko dira aipatutako inpaktuak eta Natura 2000 Sareko prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak eta horien jarraipena; hori guztia, ebaluatzen den plangintza-dokumentu baterako eskatzen den xehetasun-mailarekin.

4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den Azterketaren 3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio nabarmenik sortuko, Planeko ekintzak gauzatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak eta natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta azterlaneko 3 apartatuan identifikatutako efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak sustatutako 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duen Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2016ko uztailaren 4ko Ebazpenaren C.1 apartatuko neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak.

Era berean, kontuan hartu beharko dira aipatutako strategiaren I. eranskinean agertzen diren ingurumen-neurri eta -gomendioak, bai kasu honetan aplikatzekoak diren ingurumena babesteko neurri orokorrak, bai energia eolikoari dagozkionak.



- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak Labrazako parke eolikoaren proiektuari buruz 2021eko urrian egindako txostenean agertzen diren natura-ondarea (habitata, intereseko landaretza eta flora, abifauna eta kiropteroak) babesteko neurriak. Txosten hori erantsi zaio aipatutako zuzendaritzak egindako txostenari –ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidearen esparruan–. Bestetik, Nafarroako Gobernuako Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak 2021eko maiatzean igorritako txostenean jasotako neurriak; txosten hori erantsi zaio zuzendaritza horrek ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidearen esparruan egindako txostenari.
- Lurraldearen lotura ekologikoa ziurtatzeko behar diren neurri, arau edo erregulazioak proposatuko dira.
- «Ingurumena eta paisaia lehengoratzeko plan» bat idatzi beharko da, Planaren ondorio guztietarako (aurrekontua barne). Paisaia eta ingurumena lehengoratzeko eta integratzeko neurriak zehazteko, aurreko paragrafoetan aipatutako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenean agertzen diren irizpideak eta neurriak hartuko dira kontuan.

c. Neurri horien definizioak bat etorri behar du ebaluatzen den dokumentuaren izaerarekin eta definizio-mailarekin (kasu honetan, plan bat), eta, beraz, neurri horiek, kasu honetan, gidalerroak, irizpideak eta/edo prebentzio-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak izan ahalko dira, eta horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria izan daiteke plangintzaren geroagoko faseetan (edo Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan). Nolanahi ere, xehetasun-mailak nahikoa izan beharko du proiektu horien ingurumen-bideragarritasuna bermatzeko.

d. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentziorako eta zuzenketa- neurrien aurrekontu-zenbatespena ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

5. Ingurumena zaintzeko programa.

a. Azterketan, ingurumena zaintzeko programa bat garatuko da, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzeko jomuga izan beharko dute:

- Gainbegiratzea ea behar bezala ezartzen diren planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo zuzentzeko aurreikusita dauden neurriak.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoaren bilakaera ere.
- Plana gauzatzeko eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Azterketaren 4. apartatuan adierazikoarekin bat etorrita, ingurumena zaintzeko neurriak izan ahalko dira plangintzaren geroagoko faseetan (edo Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan) aplikatzea komeni diren edo gauzagarriak diren gidalerroak, irizpideak eta/edo kontrol-neurriak.

c. Jarraipen-neurriak Azterketaren 4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin identifikatuko dira, eta horiekin bat etorri beharko dute.



Bereziki, eta besteak beste, kontuan hartuko dira ingurumen-jarraipeneko neurriak, ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapideari erantzuteko administrazioek egindako txostenetan agertzen direnak, bai natura-ondareari eta paisaiari buruzkoak, bai kultura-ondareari edo giza habitataren kalitateari eta osasunari buruzkoak.

d. Ingurumena zaintzeko programak Azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, baita proposamen zehatz bat ere, kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6. Ingurumen-laburpena.

a. Deskribatuko da zelan txertatu planean ingurumen-alderdiak. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, Azterketaren 1.1 apartatuan deskribatutakoak.

b. Aztertu egingo da zenbaterainoko arriskua dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta beharrezko argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero oso arrisku txikia dagoela efektu esanguratsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

7. Laburpen ez-teknikoa.

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta laburpen horrek, bestalde, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen (administrazio publiko ukituei eta interesdunei kontsultatzeari buruzkoaren) 22. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin (dokumentu honen eranskinean ageri dira) kontsultatuko du gutxienez Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente



osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17.3 artikulua aplikatuz, gehienez ere bederatzi hilabetekoa izango da ingurumen-azterketa estrategikoa eta lege beraren 20., 21., 22. eta 23. artikuluetan aurreikusitako kontsultak egiteko eta informazio publikoaren prozedura betetzeko epea, irismeneko dokumentua sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

Halaber, 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua arabera, kualifikazio profesionala eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoak duten pertsonak egin beharko dute Azterketa, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du.

Azterketan egileak identifikatu beharko dira, eta haien titulazioa eta, hala badagokie, lanbide arautua adierazi. Identifikazioak barnean hartuko ditu izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren kodea edo helburu berberetarako balio duen beste dokumentu bat. Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Azterketaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira horiek, salbu eta Administrazioak berak frogagarri gisa emandako datuak.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf

Bigarren. – Ebazpen hau Oiongo Udalarari jakinaraztea.

Hirugarren. – Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 13a.

Javier Agirre Orcajo

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria



ERANSKINA

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluari jarraikiz, eragindako administrazio publikoak eta pertsona interesdunak.

EUSKO JAURLARITZA

- Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.

ARABAKO FORU ALDUNDIA.

- Arabako Foru Aldundiko Kultura, Euskara eta Kirol Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Nekazaritza Zuzendaritza.

BESTELAKOAK

- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, URA-Uraren Euskal Agentziaren bitartez.
- Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Ingurumeneko Zuzendaritza Orokorra.

HERRITAR INTERESDUNAK

- Arabako Ekologistak Martxan.
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdirako elkartea.
- Hontza Natura Elkartea
- GADEN, Natura Defendatzeko eta Ikertzeko Arabako Taldea.
- GAIA talde ekologista.
- Asociación Instituto Alavés de la Naturaleza-Arabako Natur Institutua IAN-ANI